

FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresak aurrera egin dezan, funtsezkotzat jotzen dugu gure txipek **merkatuko teknologiarik aurreratuena** izatea. Horretarako, teknologia-merkatuaren berrikuntzen berri izango dugu, urteko ikerketen bidez.

Bestalde, egunero **eguneratuko** ditugu gure **sare sozialak** eta **webgunea**. Estetikoki erakargarriak izan daitezen saiatuko gara, bezeroen arreta erakartzeko eta irudi ona emateko. Estetikatik aparte, garrantzi handia emango diogu edukia argia eta zuzena izateari.

Aplikazioari dagokionez, produktuaren adin tartea oso handia denez, diseinua **sinplea** eta **erabilerraza** izatea ziurtatuko dugu. Gainera, gure informatikariak arduratuko dira denborarekin aplikazioa hobetzeaz.

Enpresa sortzeko arrazoi nagusia alzheimerra izanik, **alzheimerren elkartekin harreman** zuzena izaten saiatuko gara, horrela laguntza ekonomikoak eman ahal izateko.

Azkenik, gure hornitzaileekin ditugun **aliantzak mantenduko** ditugu. Googleren kasuan ezinbestekoa da, produktu izarra ematen baitigute (txipa hain zuzen ere). Beste



aliantzak hain ezinbestekoak ez diren arren, horiei eustea ere interesatzen zaigu, horiei esker txip osatuagoak eta gure bezeroen beharretara hobeto egokitutakoak eskaini baititzakegu.